




**ENEK**

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación  
Ecológica de Euskadi



EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspena  
Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la CAPV

## LAGen berrikuspenaren oinarritzko dokumentu eta dokumentu exekutiborako ekarpen eta proposamen bilketa

Galderei erantzun eta marka ezazu zein gai edo azpigairi egiten dion erreferentzia:  
(Adibidea)- *Klima Aldaketa Plangintza-dokumentuek lurralde-jasangarritasunaren balioetan sentsibilizatzea gizartea*

### Proposamen hauetatik, zeinekin zaude ados?

- Oinarritzko dokumentua 6.2. Azpiegitura berdeen kontzeptua txertatzea.
- Oinarritzko dokumentua 6.2.1. Azpiegitura berde integratua eta ekosistemen zerbitzuak: Eremu hauetan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren sustapena helburu bezala ezartzea.
- Oinarritzko dokumentua 8.3. Hiri hazkundearen perimetroa. Guztiz ados hemen planteatzen denarekin. Oso egokia ikusten dugu perimetro hau ezartzea, besteak beste Gasteiz bezalako hirian dagoen "anillo verde" delakoa bermatzeko. Berdea edota nekazal ikuspuntutik eraztun marroia, hiria elikatze moduko ortugintza ekologiko sistemak baliatu ditzakeena.

### Zalantzak sortzen dizkizuen proposamenik badago? Zergatik?

- Oinarritzko dokumentua 6.2. Egokia ikusiko genuke naturagune babestuetan (6.2.2.) eta korridore ekologikoetan (6.2.3.) ere helburu bezala nekazal ekoizpen eredu ekologikoaren sustapena aipatzea. Ekoizpen eredu hau nekazaritza aktibitatea eta ingurumenaren babesa txertatzeko tresna eraginkor bat da, ekoizpen orientazio desberdinentzat baldintza teknikoak ezartzen ditu eta kontrol ofiziala ezarrita dago Europar batasunaren mailan.
- Oinarritzko dokumentua 6.2.1. Azpiegitura berde integratua eta ekosistemen zerbitzuak: Eremu hauetan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren sustapena helburu bezala ezartzearekin batera "gertuko ekoizpen bideak" kontzeptua gehitu da. Gure ustez azken hau soberan dago zeren ekoizpen eredu ekologikoan jadanik txertatuta dago: abeltzaintza lurrari lotutakoa izan behar du, adibidez baliabideak (pentsuak, bazka) tokian lortu behar dira eta gutxieneko portzentai batzuk ezarrita daude Europar legedian. Nekazaritzan ere tokiko baliabideak bilatzen dira eta ongarrizketa prozesuetan adibidez ez dira abonua sintetikoak erabiltzen, urrutitik ekarritako petroleotik lortutakoak, eta lurrik gabeko nekazaritza ere ez da onartzen. Gertutasunaren ikuspuntu soziala eta ekonomikoa dokumentuaren beste atal batzuetan landuta dago, elikadura atalean adibidez eta hor egokiago ikusten dugu.




Tel.: 946271594  
info@eneek.org  
www.eneek.org

garantia@eneek.org



**ENEK**

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación  
Ecológica de Euskadi



EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspena  
Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la CAPV

## Oinarrizko dokumentuan edo dokumentu exekutiboan jasota ez dauden ze proposamen gehituko zenuke?

- Oinarrizko dokumentua 6.2. Azpiegitura berdea: Orientabideak ezartzerakoan ez da proposamenik egiten nekazal ekoizpen ekologikoaren helburua gauzatzeko.
- - Oinarrizko dokumentua 8.3. Hiri hazkunderaren perimetroa. Redentsifikazio kontzeptua aipatzen da eta honen harira orientabide bezala proposamen bat: lurrik gabeko nekazaritza industria gero eta gehiago garatzen ari da, hidroponiko instalazio industrial modernoak gero eta ohikoagoak dira. Ekoizpen instalazio hauek landa eremuetan eta askotan balio agronomiko handiko lurretan ezartzen ari dira eta honek nekazaritza ekologikorako egokiak izan daitezkeen lurren galera dakar. Industria hauek landa eremuan kokatzeak ere arazoak ditu energia, saneamendu, eta hondakinen kudeaketa industrialak eskatzen duelako. Gure proposamena instalazio hauek gaur egun dauden polígono industrialetan kokatzea da. Redentsifikazio kontzeptuari helduta pabelioi askoren gainean holako negutegi instalazioak eraikitzea ahalbidetu beharko zen.

-  
-




Tel.: 946271594  
info@eneek.org    garantia@eneek.org  
www.eneek.org

ENEK, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua. Zuzenbide publikoko korporazioa. (Eusko Legebiltzarrak 10/2006 Legea, E/IAA 2007ko urtarrilak 5). IFZ/CIF: 02000531J  
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi. Corporación de derecho público. (Ley 10/2006 Parlamento Vasco, BOPV 5 de enero de 2007)



**ENEK**

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación  
Ecológica de Euskadi



EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspena  
Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la CAPV

## Proposatutako gai eta azpigaiak.

- Zeharkako alderdiak
  - Genero-ikuspegia
  - Klima-aldaketa
  - Osasuna
  - Euskara
  - Lurralde-erlazioa
- Paisaia
- Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - Ingurune fisikoaren antolamendua
  - Azpiegitura berdea
- Landa-ingurunea
- Hirigunea
  - Hiri birgaitzea eta berroneratzea
  - Lurraldearen jasangarritasuna jarduera ekonomikoen erabileran
  - Hiri hazkundearen perimetroa
  - Metropolialdeak eta eraldaketa ardatzak
  - Bizitegi-kuantifikazioa
  - Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - Plangintzen bateragarritasuna
- Mugikortasun jasangarria
  - Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - Bide-mugikortasuna
  - Trenbide-, portu-, eta aireportu-mugikortasuna
  - Mugikortasun kolektibo multimodala
  - Eredutikoa
- Ura
- Energia
- Gobernantza: parte-hartzea, antolaketa, adierazleak
  - Parte-hartzea
  - Gobernantza
  - Lurralde- eta hirigintza-adierazleak



Tel.: 946271594  
info@eneek.org  
www.eneek.org

garantia@eneek.org